



AHI-061/19-P25

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: ARABAKO ERRIOXAKO LURRALDE
PLAN PARTZIALA BERRAZTERTZEKO AURREPROIEKTUA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- arauaren helburuak
- egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Guardiako (Arabako Errioxa) lurralde plan partziala berraztertze xedea duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2020ko apirilko 16ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	<p>Abenduaren 28ko 271/2004 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zen Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partziala. Hartan garatu ziren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onetsitako EAEko Lurralde Antolamendurako Zuzentarauak, eta zuzentarauetan ezarritako berariazko antolamendu irizpideak zehaztu ziren Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionalerako.</p> <p>Plan horrek honako udalerrri hauek hartzen ditu barnean: Mañueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego, Eskuernaga eta lekora.</p> <p>Irailaren 28ko 251/2010 Dekretuaren bidez, behin betiko</p>
--------------------	---



	<p>onetsi zen Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren lehenengo aldaketa, helburu nagusi honekin: upeltegiei buruzko araudia (lurzoru urbanizaezina zaindu eta babesteko helburua zuena) eskualde hartako mahasgintza eta ardogintza sektorearen egoera sozioekonomikora eta funtzionamendura moldatzea.</p> <p>Irailaren 18ko 134/2018 Dekretuaren bidez, Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren bigarren aldaketa onetsi zen, behin betiko. Aldaketa hori paisaiaren zehaztapenekin loturik zegoen.</p> <p>2015eko maiatzean, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak memoria bat egin zuen, zeinean azaldu baitzuen Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialeko zehaztapenen betetze maila, bai eta identifikatutako desdoitzeak arindu edo konpontzeko beharrezkoak diren proposamenak ere.</p> <p>Hura indarrean jarri zenetik ia hamabost urte igaro direnez, beharrezkoa da Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partziala berraztertzea, egoera ekonomiko berriaren eta aldi horretan sortutako beharrian berrien ondoriozko egoerari erantzuteko. Oro har, aldi horretan gertatutako inguruabarrak direla eta, beharrezkoa da planean ezarritako antolamendu irizpide orokorrak aldatzea.</p> <p>Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren berrazterketa Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduko zuzentarau berrietara moldatu beharko da, zeinak uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsi baitziren behin betiko.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak lurralde plan partzialak sortzeko eta finantzatzeko erabakitako lankidetzarekin jarraitzeari begira, administrazio horiek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dute Araba Erdiguneko eta Guardiako (Arabako Errioxa) lurralde plan partzialak berraztertze dokumentu bat sortzeko.</p> <p>Hitzarmen horren indarrez, Arabako Foru Aldundiak Guardiako (Arabako Errioxako) lurralde plan partziala egiteko eta izapidetzeko ardura hartuko du.</p>
	2015eko Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan



<p>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>partzialaren betetze mailari buruzko memorian diagnostiko eguneratua eta ahalik eta errealistena egiteko informazioa dago jasota. Izan ere, beharrezkoa da 2004ko lurralde plan partzialaren aurreikuspenak eta hamar urte geroagoko egoera konparatzea, haren zehaztapen maila zehazteko, bai eta ondorio positiboak eta desdoitzeak edo oraindik garatu gabe dauden alderdiak ere.</p> <p>Dokumentu horrek, beraz, Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala berraztertuz konpondu nahi diren arazoak jasotzen ditu, eta honako esteka honetan dago aztergai:</p> <p>http://www.araba.eus/publicar/arabakoerrioxalpp/memoria.pdf</p> <p>Laburbilduz, konpondu nahi diren arazoak honako hauek dira:</p> <p>Ingurune fisikoari dagokionez, Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partzialean ez dira jasotzen 2004an onetsi zenez geroztik indarrean sartu diren xedapen arauemaile ugari, zeinen bitartez beharrezko neurriak ezarri baitira ingurune fisikoa modu jasangarrian kudeatzeko, bai lurraldearen antolamenduaren esparruan, bai hala dagokien sektore esparruetan, nagusiki ingurumen sektorean eta lehen sektorean.</p> <p>Etxebizitzen kuantifikazioari dagokionez, Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala ez dago egokituta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamendurako zuzentarau berrietara zeinak uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsi baitziren behin betiko.</p> <p>Lurzoru urbanizaezinean upategiak eta nekazaritza pabilioiak jartzeari dagokionez, Guardia-Arabako Lurralde plan partzialean planteatutako eremuan hainbat arazo daude eta irtenbidea eman behar zaie, esate baterako, upategiak eta nekazaritza pabilioiak jartzeko araudia bateratu beharra dago, arazo eta presio ezberdinak dituzten eremuak daude (Kantabria mendilerroa, erdialdeko eremua eta Ebroko eremua), horiek lurzoru urbanizaezinean jartzea baimentzeko plan berezia egin eta onetsi beharra dago...</p> <p>Paisaiari eta kultura ondareari dagokienez, beharrezkoa da Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala honako hauei egokitzea: ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia</p>
---	--



	<p>babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa, eta ekainaren 3ko 89/2014 Dekretua, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko dena.</p> <p>Horrez gain, beharrezkoa da Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partzialean turismoa sustatzeko neurriak jasotzea, bai eta ekipamenduen kalitateari eta funtzionaltasunari eta azpiegiturei eta garraio sistemari buruzkoak ere.</p>
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Horregatik guztiagatik, agerikoa da beharrezkoa eta egokia dela Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala berraztertzea.</p>
HELBURUAK	<p>Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala berraztertzearen helburua da antzemandako arazoak konpontzea.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	<p>Antzemandako arazoak konpontzeko, beharrezkoa da Guardia-Arabako Errioxako lurralde plan partziala berraztertzea.</p> <p>Ez dago, beraz, araugintzaz besteko aukerarik, plana berraztertzeko beharrezana eta egokitasuna saihesteko modukorik.</p>